

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2020 Premia Fiskaleko Araugintzako Dekretua, ekainaren 23koa. Onestea Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergako eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako doikuntza neurriak, COVI-19rekin loturikoak

Zerga premiazko araugintzako dekretu honen helburua da COVID-19ak sortutako egoerarekin loturik dauden zenbait aldaketa sartzeari buruzko foru arau orokorrean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan, eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan.

Zergei buruzko foru arau orokorrari dagokionez, datuak lagatzeko kasu berri bat ezartzen da, loturik dagoena maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuan ezarritako bizitzeko gutxieneko diru sarreran datzan Gizarte Segurantzako ordaindutakoaz bestelako prestazio ekonomikoa kudeatzeko ardura duten entitateekiko lankidetzarekin.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, bi kenkari berri sortzen dira 2020rako, bata ohiko etxebizitza berrizatzeko lanengatik, eta bestea ibilgailu elektrikoak kargatzeko tokiak instalatzeagatik.

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, salbuetsizat ematen dira aseguru entitate jakin batzuek osasun langileentzat sinatutako doako talde asegurutik sortutako prestazioak, COVID-19ak sortutako gaixotasun eta heriotza kontingentziengatik. Neurri horrekin Espainiako aseguru sektoreak izan duen ekimen solidarioari lagundu nahi zaio, hau da, osasun langileak, egoitzetakoak barne, aseguru kolektibo horretan ezarritako baldintzetan babesteko ekimena bultzatu nahi da, haiek COVID-19k eragindako pandemian funtsezko lana egiten ari baitira.

Azkenik, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, salbuetsizat ematen dira zenbait moratoria formalizatzeko agiriak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak honen gainean egindako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, eta 6/2005 Foru Arauak (otsailaren 28koa, Arabako zergei buruzko orokorra) 8. artikuluan eta 52/1992 Foru Arauak (abenduariaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa) esleitzen dizkidaten eskudantziez baliatuz, presako arrazoiak direla-eta, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aldatzea

Beste letra bat, r), eransten zaio otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauari (Arabako Zergen Foru Arau Orokorra), 92. artikuluko 1. paragrafoan. Honela egongo da idatzita:

“r) Maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuan ezarritako bizitzeko gutxieneko diru sarreran datzan Gizarte Segurantzako ordaindutakoaz bestelako prestazio ekonomikoa kudeatzeko ardura duten entitateekiko lankidetzatza”

2. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga: ohiko etxebizitza berrizatzeko lanengatik egin daitekeen kenkaria

Bat. 2020ko zergaldirako bakarrik, zergadunek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako kuota osotik kendu ahal izango dute beren jabetza den ohiko etxebizitza berrizatzeko lanak egiteagatik ordaindutako diru kopuruen ehuneko 10, lan horiek zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean jartzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra bitartean hasten badira.

Aurreko paragrafoan ezarritako kenkaria, indarraldi berarekin eta obren hasiera-egun berarekin, beren jabetza den ohiko etxebizitza berrizatzeko lanak egiteagatik ordaindutako diru kopuruen ehuneko 15 izango da, lan horien helburua A edo B klaseko energia sailkapena lortzeko energia birgaitzea baldin bada.

Bi. Aurreko Bat apartatuan ezarritako kenkaria aplikatzeko, ondoko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Etxebizitzak gutxienez 10 urte izan behar ditu aipatutako obrak hasten diren egunean.
- b) Egiteko diren lanak udalaren obra lizentziaren pean egon behar dira eta zergadunak hura eduki behar du.
- c) Obra gauzatzeko aurrekontua, gutxienez ere, 3.000 euro izan behar da.

Hiru. Kenkari hau aplikatzeko, etxebizitzari ohikoa iritziko zaio betetzen baldin bada aza-roaren 27ko 33/2013 Foru Arauak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena) 87. artikuluko 8. apartatuan xedatutakoa.

Lau. Aurreko Bat apartatuan adierazi den kenkariaren oinarriak 15.000 euro izango du gehieneko muga. Oinarri hori, ohiko etxebizitzan egindako berrizatzeko lanak gauzatzeko ordaindutako diru kopuruen arabera zehaztuko da. Zergadunak frogatu beharko du obra horiek gauzatu izana, dagozkien fakturak aurkeztuz, eta faktura horiek bete beharko dituzte haiei buruzko araudian ezarritako baldintzak.

Bost. Kenkariaren oinarria osatzen duten diru kopuruetatik kendu behar da zergadunak kontzeptu kengarri horrengatik jasotzen dituen eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden diru laguntzen zenbatekoa.

Obra gauzatzeko ordaindutako diru kopuruek gainditzen badute aurreko Lau apartatuan adierazi den gehieneko kenkari oinarria, jaso diren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden dirulaguntzek proportzioz murriztuko dute kenkariaren oinarria.

Sei. Artikulu honetako Bat apartatuan adierazi diren lanak 2021eko martxoaren 31rako bukatuta egon behar dira, eta egun horretara arte egindako ordainketak aurreko Lau apartatuan adierazi den kenkariaren oinarrian sartuko dira.

3. artikulua. Osasun langileentzako doako talde aseguru

Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zergatik salbuetsita egongo dira Aseguru eta Berraseguru Entitateen Espainiako Elkartearen bitartez aseguru entitateekin osasun langileentzat sinatutako doako talde asegurutik etorritako prestazioak, COVID-19ak sortutako gaixotasun eta heriotza kontingentziengatik, hurrenez hurren, baita ere aseguru entitateekin osasun langileentzat sinatu den eta antzeko ezaugarriak dituen doako beste edozein talde aseguru.

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoak 2020ko zergaldirako izango ditu ondorioak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasuan, eta 2020. urterako, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren kasuan.

4. artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzea

Beste zenbaki bat, 50, eransten zaio ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 69. Bat artikuluko B) letrari. Honela egongo da idatzita:

“50. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak (COVID-19aren ekonomia eta gizarte eraginari aurre egiteko aparteko presako neurriena) 13.3 artikuluan eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuak, zeinaren bidez gizarte eta ekonomia eremuetako presako neurri osagarriak hartzen baitira COVID-19ari aurre egiteko, 24.2 artikuluan ezarritako moratoriak formalizatzeko agiriak, eta COVID-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz hartutako esparru-erabaki sektorialen babespean emandako eta maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege-dekretuaren 7. artikuluan ezarritako ohiko moratorienak.

5. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga: ibilgailu elektrikoak kargatzeko tokiak instalatzeagatik

Bat. 2020ko zergaldirako bakarrik, zergadunek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako kuota osotik kendu ahal izango dute beren jabetza den finkan edo komunitate garajeen beren jabetzako eta erabilera partikularreko ibilgailu elektrikoak kargatzeko tokiak instalatzeagatik ordaindutako diru kopuruen ehuneko 15. Zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean jartzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra bitartean hasi behar dira instalazioak.

Bi. Aurreko Bat apartatuan ezarritako kenkaria aplikatzeko, indarrean dagoen legerian agindutako baimenak eduki beharko dira.

Hiru. Aurreko Bat apartatuan adierazi den kenkariaren oinarriak 15.000 euro izango du gehieneko muga. Horretarako, zergadunak frogatu beharko ditu ordaindutako diru kopuruak, dagokien faktura aurkeztuz, eta faktura horrek bete beharko ditu hari buruzko araudian ezarritako baldintzak.

Lau. Kenkariaren oinarria osatzen duten diru kopuruetatik kendu behar da zergadunak kontzeptu kengarri horrengatik jasotzen dituen eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden diru laguntzen zenbatekoa.

Ordaindutako diru kopuruek gainditzen badute aurreko Hiru apartatuan adierazi den gehieneko kenkari oinarria, jaso diren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden dirulaguntzek proportzioz murriztuko dute kenkariaren oinarria.

Bost. Artikulu honetako Bat apartatuan adierazi diren instalazioak bukatuta egon beharko dira 2021eko martxoaren 31rako, eta egun horretara arte egindako ordainketak aurreko Hiru apartatuan adierazi den kenkariaren oinarrian sartuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta bere testuan xedatutakoaren arabera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari ahalmena ematen zaie zerga premiazko araugintzako dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu honen berri emango zaie Arabako Biltzar Nagusiei, indarrean dagoen araudiari jarraituz izapidetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA